

BizkaIdatz XIV
Literatura Saria
(2022)

“JARRAITZEKO PREST?
ORAIN ZURE TXANDA DA”

*Oinarriak barrualdean

NI EZ SARRA JEVO

GOTZONE BUTRON KAMIRUAGA

 **Bizkaia**
Foru aldiungo
diputazioa foral



GOTZONE BUTRON KAMIRUAGA

(Urduliz, 1965) Filosofian lizentziatua. Egun, liburuzaina Abusuko bibliotekan. 2017an Argihizkiak saria irabazi zuen. 2018an Lanbro Beltza lehiaketan sari berezia jaso zuen eta 2019an Bilbao Aste Nagusia lehiaketaren Gargantua sariaren akzesita. Hainbat idazleren arteko liburuetan idatzi du: *Uribe Kosta Mungialdea Ipuinak-cuentos, Relatos para el andén, Microrrelatari per l'erradicació de la violència de gènere, 101 relatos bibliotecarios*, etab. 2021ean *Sardinerak* ipuina idatzi zuen, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratua.

Bizkaldatz XIV.
Literatura Saria

NIRE SARAJEVO

GOTZONE BUTRON

© Gotzone Butron Kamiruaga, 2022

© Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia.

Antolatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Koordinatzaileak: Álex Oviedo eta Zuriñe Antoñana

Azala: Mikel Apodaka

Lehenengo edizioa: 2022ko apirila

LG: BI-585-2022

Zdenka dut izena. Bosnieraz “sortu” edo “eraiki” esan nahi du. Amomaren izena jarri zidaten, herriminak bultzatuta edo, ez garelako amaldeko familiaren jaioterrian bizi. Zergatia, ordea, sinpleagoa izan liteke, ahoskatzean mihian sortzen duen dardara jolastia baitu gogoko amak.

Oporraldiari gorroto nion txikitan; udaro, Bosniara joan ohi ginen hiruzpalau aste ematera. Gela bat alokatzen genuen hiriburutik hainbat kilometrotara. Nik nahiago nukeen Mediterraneoko kostaldeko hoteltzar horietako edo Landetako kanpinetara joan, lagun guztiak bezala, ez etxe zatarreko herri hartara. Aitortu beharra daukat, herritarren beldur nintzela, higuina ematen zi-

datela soineko eta buruzapi koloredun emakumeen mintzaira ulergaitzak. Laster konprenitu nuen, hala ere, estimu handitan zeukatela ama, nebak eta biok zergatik agurtzen gintuzten bero galdetzen genionean, sorbaldak goratu eta ezagutzen ez zituela erantzuten bazuen ere. Ez genuen tutik ere ulertzen. Bagenekien, haatik, bertakoek gutaz galdetu egiten ziotela hark besoak gure bizkar gainean amultsuki jarrita erantzuten zien moduagatik: ahots mehe goxoarekin.

Koskortu ginenean, euren arteko elkarrizketak asmatu eta ahopeka errepikatzen genituen barrez ito arte. Ama ez zen gurekin haserretzen; soineko zabalak soinean eta eguzkitako betaurrekoak kizkur menderaezinen artean, pozik ibiltzen zen sepia koloreko postal zaharren antzeko herri hartan. Herri itsusi hartan.

Janari eta opariz goraino beteta eramaten genuen autoa. Aurrean, gidari bakarra; atzean, Marco eta biok, praka labur eta niki berdinak jantzita, poltsen artean zango argal eta luzeak ezin egokiturik, hain estu non lo-kuluxkarik egiteko apenas toki bari, elkarrekin borrokatzen genuen.

Zertarako hainbeste jaki? Eta hainbeste erregalu? Herri horretan ez al dago dendarik, ala?, itauntzen genuen.

Aurrerantzean, ez genuen halako galderarik egiten. Gorroto genion herrialdeari ordurako. Eraikinen aurrealdeek agerian zizutuzten metraila zuloek baino izu-ikara handiagoa ematen zigutzen zakurren zaunkek. Nonahi ageri ziren zakur gosetiak, zakur amorratuak, oharkabeen ibiliz gero, hoska egiten zuten zakur madarikatuak. Amak, kezkatuta, makilatxo bat beti aldean eramateko gomendatzen zigun, kontuz ibiltzeko zakurrekin.

Orduan, zergatik etortzen gara udaro?

Ez zuen erantzuten, baina tristatu egiten zen. Eta halako galderak guretzat gordetzen ikasi genuen. Ama goibel ez ikusteko. Oporretan, batez ere.

Marco eta biok nahiago izango genukeen Gabonak ez ezik udako oporrak ere aitarekin eman, edo amaren gurasoak Londresen —hura bai hiria!— bisitatu, han bizi baitziren Sarajevon lehenengo bonba jaurti zutenetik. Hura kontatu zigun amak, eta Bosniako gerra bere etxe ondoan hasi zela. Aitite-amomek alde egin behar izan zuten soldaduen izugarrikeriak bultzatuta, beste

hainbat iheslarik bezala. Ama, aldiz, bertan geratu zen. Temati baino tematiago. Edozelan ere, zenbait hilabeteren buruan hanka egin zuen, ezinbestean. Bilbora etorri zen orduko mutil-lagunarekin eta handik urte batzuetara aita ezagutu zuen. Edozein modutan, gerra ostean sorterrira itzuli nahi izan zuen, han geratu ziren lagun, irakasle eta senideak bizirik ote zeuden jakitera. Ez zigun kontatu zer aurkitu zuen, gazteegi ginelakoan.

Jende asko desagertu egin zela esan zigun soilik. Ezagun asko. Lagun asko. Biztanle asko erail zituztenez, txakurrak jabe barik geratu ziren, kaleetan alderrai. Goseak amorratuta. Eta hainbeste sufrimendu ikusia zuten herritarrek txakurrak ez hiltzeko eskatu zieten agintariei.

Institutuan aspertu egiten naiz, eskoletan, esan nahi dut. Matematika, Historia, Euskara, Ingeles, Literatura... Atsedendaldi gehienetan, atzeko patiora joaten gara lagunok erretzera; beste batzuetan, Kerman etortzen da nire bila. Auto barruan egoten gara, musika entzuten eta elkarri eskua sartzen kamiseta edo jeansen barrutik, leihoak lurrundu arte. Txirrina jotzean, marrazkiak egi-

ten dizkiot kristalean nitaz oroit dadin. Elkarrekin denbora gutxi badaramagu ere, berarekin kolatuta nago. Bera ere bai nirekin. Hala uste dut, behintzat.

Duela bi urte, amaren aita gaixo zegoenez, Londresera joan ginen. Marco eta biok pozarren prestatu genituen maletak bidaia plan ederra iruditu zitzaigulako: autobus gorritik hiria ikustatu, noria erraldoian igo, Big Ben-en aurreko zubian argazkiak atera... Lagunak inbidiaz amorratzen zeuden. “Bai zortea, Londresen familia edukitzea! Igo argazki piloa *Instara!*”.

Hirigunean ordu eskas batzuk baino ez genituen eman, tamalez, aitite-amomen auzoa urruti baitzegoen; izan ere, bertara heltzeko, trena eta autobusa hartu behar izan genituen eta azken tartea taxi beltz ikaragarri horietako batean egin. Film batean ba-geunden legez! Autotik irtetea aurkitu genuena, ostera, ez zen filmetan agertzen dena bezalakoa. Lau solairuko eraikin zahar-
rrak genituen begi aurrean, pertsianak grafitiz beteta, kaleetan zarama nonahi. Euria mara-mara ari zuen, eta hotzak geunden. Errekastoek espaloiak gainditzen zituzten ertzetara zabor pus-
kak

eroanez. Neba eta biok elkarri begiratu genion, muturtuta, “nora arraio etorri gara?” ozen esatera ausartu ez baginen ere.

Amaren gurasoenean sartzean, kirats astun batek jo gintuen: janari arrotza, hezetasun garratza, desinfektatzailea, dena nahasian. Gero bi emakumeren arteko jargoi ulergaitzak giroa bete zuten. Brastadan oroitu nuen txikitan ere han egonak ginela, neba haurtxoa zela; neu, neskamotza. Akorduan daukat orduan keinuka komunikatzen ginela, bosnieraz zein ingelesez bizpahiru berba baino ez genekizkielako. Bata besteari bultzaka sartu ginen biok aitonaren logelan, zer aurkituko ote genuen erabat kikilduta. Arnasgailu artean zegoen agurea, erdi lotan. Barrua hausten zuen argazkietan ezagutu genuen gizon sendoa hain uzkurtuta ikus-teak. Logelatik irteten ari ginela, begi-keinu bat egin zidalakoan nago, baina ez nion inori kontatu.

Hiru egun eman genituen bertan, ingelesez elkar ulertzeko ahaleginetan. Barregarria zen oso, eta pentsatu nuen “zelan konponduko ziren gizajoak hainbat urtetan horrela hitz eginez?”. Egun horietan ikasi nuen *tarhana* zopa egiten: irakin gabeko esnea, jogurta, zekale legamiatua, barazkiak eta okela. Garratza.

Bitxia. Bueltan, lagunei egingo niela deliberatu nuen, zelako aurpegia jarriko zuten soilik ikusteko.

Gure egonaldiaren azken egunean, argazki-album bat erakutsi zigun amomak —kolorge, zaharkitua—, familia bosniarra ezagut genezan. Irudi guztiak ziren gerra aurrekoak, Tito mariskalaren garaikoak, alegia: bi ume koskor eskola-uniformez jantzita, antzezlan baterako mozorrotuta, hondartzan jolasean...

—Zuen ama eta neba, gaztetan; aitona eta biok, eta beste hauek, aitonaren gurasoak —Artrosiak deformatutako atzamarra, bakoitzaren gainean.

Albuma itxi aurretik, argazki haietako bat kontu handiz askatu eta eman zidan.

—Hartu, hartu! Gorde zeuk, zaharrena zara eta!

—Non daude orain aitonaren gurasoak? —galdetu zuen Marcok.

—Hilda, ume! —berak, buruari alderik aldera eraginez.

Ukondoko bat eman nion nebari, eta argazkia gerriko poltsan gorde nuen. Oraindik ere, noizean behin begiratzen diot. Mahai baten inguruan agertzen dira senideak, erretraturako dotoretu-

ta. Gizonak, berdintsuak, sendoak, bizardunak, gorbatadunak. Aurre-aurrean, ugazabandrea, birramoma, begirada garbiko emakume mardula. Haiek ikusita, aitaren aldekoak garela iruditu zitzaidan, hain argalak. Nolanahi ere, mahai gaineko txorien etxolatxoagatik gustatzen zait argazkia. Aititeren altzoan jesarritan, jarrera konplizean heltzen dio etxolari osabak bi eskuekin. Ez genuen osaba inoiz ezagutu eta ezer gutxi dakigu hartaz.

Agure gizajoari diosal keinua egin nion, kirats sarkor ezagunari aurre egiteko arnasari eutsita. Begiak itxita zeuzkan, aurpegiera lasaia. Aurrean nengoela sumatu izan balu bezala, deblauki ireki zituen.

—Bagoaz, *deda!* —xuxurlatu eta argazkia hurreratu nion. Erantzunik gabe ere, begietan igarri nion oroimina—. Zaindu, aitite!

Malkoei ezin eutsirik aldendu nintzen gela ospitalizatua uzteko irrikan.

Historia klasean XX. mendeko gatazkei buruzko lanak egin behar ditugu, taldeka. Ikaskide batzuek Bigarren Mundu Gerra

aukeratu dute; beste batzuek, gerra zibila eta guk, Bosniako gerra, jakina, lagunek uste baitute errazagoa izango dela familia bertakoa izanda. Taldetan elkartuta, ikaskideon berbotsak gelako dezibel maila igotzen du.

—Zen —horrela deitzen didate lagunek, Zen edo Zenka—, galdetu amari.

—Ez dakit lagunduko digun... ez zaio gustatzen horri buruz hitz egitea.

—Orduan, amomari.

—Ez dugu askotan elkarrekin hitz egiten. Gainera, bera ez da ingelesez ondo konpontzen, badakizue...

—Bai, bai, *bosningelesez* mintzatzen da.

Oihanaren ateraldiak!

—Eta ez dauka helbide elektronikorik.

—Zein hertsia den zure familia...

—Gerra bat pasatu dutela, aizue!

—Ba... horrexegatik kontatu beharko lukete, ezta?

Iluntzean, amari begiratu diot zeharka, gogo-aldarteasmatu nahian, eta afaria prestatzen dabilela hurbildu natzaio, laguntzeko aitzakiarekin.

—Zer jakin nahi duzu? —erantzunak eman beharrean galderak botatzeko ohitura dauka.

—Ez dakit..., dena!

—Galdetu ba!

Horrelakoetan ez zait galdera bat ere bururatzen.

—Beste batean! —Gelara itzuli naiz eta ezinegona baretzeko makillaje-poteak ordenatzeari ekin diot. Errenkadan jarri eta nahasi, jarri eta nahasi.

Pasa den udan, Alifakovac auzora joan nintzen neure kabuz, inori esan gabe. Sarajevoko auzo zaharra oso bizia da. Kanpaihotsak, *muezzinaren* otoitzerako deia eta trafikoko zarata elkarrekin nahasten dira harmonia xelebrea. At Mejdán parke inguruan tranbiatik irten nintzen eta oinez jarraitu nuen inguruak miatzeko. Bero sapaekin batera, ahaztuta neuzkan gerra-irudiak bor-bor etorri zitzaizkidan: liburutegi eraitsia, kaleak harriztarez beteta, eraikin urratuak, leihoak txiki-txiki eginda, jendea

betilun, ikaratuta, menderatuta. Udaletxean sartu nintzen. Panel batzuetan azaltzen da gerra aurretik liburutegia izandako eraikin ederra, bonben ondorioz, hiru egunez sutan egon zela. Benetan hunkigarria iruditu zitzaidan jakitea Orkestra Filarmonikako musikari bat hondakinen artean biolontxelo jotzen aritu zela hogeita bi egunez, hildako bakoitzeko egun batez, alegia. Orduko egun haietan, paper kiskaliak erortzen ziren etengabe zerutik, egurats eder bezain mingarria sortuz nire irudipenean. Zubiaren bestaldeko kale aldapatsuetan abiatu nintzen birraitite-amomen hilobien bila. Sargoriaz libratzeko, noizean behin geldiuoneak egin nituen, propio, dendetako erakusleihoen aurrean, atarien barrualdeak turisten pare arakatzen, jendeari erreparatzen... Arnasestuka heldu nintzen auzoaren goialdeko muinora, ilea melenga, buruan pega-pega eginda, bizkarra, motxilaren kontra blaituta. Hango ikuspegia, hala ere, zoragarria iruditu zitzaidan, mendiz inguratutako paraje naturalaren erdian, hiria barreiatuta ikus baitaiteke. Birrikak aireberrituta, hobien artean galdu nintzen noraezean labirinto batean nola. Bihotza ukabil batean sartu zitzaidan berehala ehunka monumentu zuri ilara amaiezinen aurrean: gerran

hil ziren zibilen oroigarri. Goragalea etorri zitzaidan eta alde egin behar izan nuen.

Kermanek ez dit azkenaldian deitu. WhatsApp ez ere hotz erantzuten ditu mezuak. Beti dauka zereginen bat, dela entrenamendua, dela lagunekin erosketak egin... Zer dakit nik!

Atzeko patioan, lurrean jesarrita gaudela, horrek gauza bakarra esan nahi du lagunen ustetan, nirekin moztu nahi duela baina ez dela ausartzen. Neuk ere galdetu diot berari, beno, idatzi diot. Berak ezetz, lanpetuta dabilela, besterik ez.

—Burutik eginda al zaude?! —dio Ohianak, zupada bat emanetz—. Ez da horrelakorik galdetzen.

Denak ados. Ni ez. Moztu nahi badu, esan dezala eta kito. Isildu egin naiz beheko ezpainari hozka eginez, lagunak gai bati heltzen diotenean ez baitaukate bukaerarik.

Listua irentsi eta gaiak aldatu dut.

—Lanarekin hasi behar dugu, neskok. Egun gutxi batzuk besterik ez zaizkigu geratzen.

Interneten bildu dugu informazio zehatzagoa, eta aurkitu-

takoa espantatu egin gaitu. Jugoslavia deseginda, gerrak ia lau urte iraun zuela irakurri dugu. Serbiako gobernuak Slobodan Milošević buru zuela, Sarajevo setiatu zuen inori irteten ez sartzten utzi gabe. Ur eta argindar barik eta jaki gutxirekin biziraun behar izan zuten herritarrek ia lau urtez. Horren eraginez, gerraren ikur nagusi bihurtu da, Omarska kontzentrazio-esparrua eta Srebrenicako sarraskiarekin batera. Izugarri hunkitu gintuen irakurtzeak hildakoez gain, milaka emakume eta hainbat gizon bortxatu egin zituztela.

—Arraioa!

—Aizu, Zen, zure ama noiz irten zen Sarajevotik?

Zurbil jarri naiz, gero masailak gorritzen nabaritu ditut.

—Setioaren hasieran alde egin zuen nobioarekin! —ahotsaren tonua kontrolatu ezinik, nik.

—Lasai, aizu! Boteprontoan bururatu zait.

—Ba... pentsatu apur bat hitz egin baino lehen! —Aulkia nahi gabe bota dut komunera joateko supituki altxatzean. Ikararen izerdi usaintsuak alkandora hondatu dit.

Behin etxean, ez dut ama sukaldean aurkitu. Arraroa da, gaur bezala berandu heltzen naizenean, janariaren lurrin nahasiek egin ohi baitidate harrera, afariarekin batera biharamuneko bazkaria prestatzeko duen ohiturari esker. Egongelako atea itxita dago; barruan, ama ezezagun batekin. Isilunez beteriko elkarrizketa bixian ari dira emakumeak. Belarria hormaren kontra jarrita, anplifikatuta heldu zaizkit negar-zotinak. Ogitartekoa prestatu eta bideoak ikusten geratu naiz, sukaldean bertan. Marco bere gelan, seguru asko, ikasten dagoelako plantak eginez, bideoak ikusten bera ere.

Noiz edo noiz, egongelarantz begiratzen dut bisitaria nor izango ote den asmatu nahian. Bosnieraz berbetan aditu ditut, murmurika. Mokadua eginda, edalontzi eta plateren azantzak etxean banagoela ohartaraziko dielako esperantzan aritu naiz. Ezer ere ez. Jakin minez, bertara sartzea ere otu zait. Ez naiz ausartu, ordea.

Luze iritzita nagoela, ezezaguna korridorean agertu da buruzapia atontzen, begiak gorrituta. Kostata baina, irribarre egin dit.

— *Ti... mora da si Zdenka*—esan dit bosnieraz.

Buruarekin baietz, nik, Zdenka naizela.

Zeozer gehitzeko asmoa izan badu ere, azken begirada bat eman eta alde egin du, gure artean aire bolada jelatua utzita. Erdi zabalik geratu diren ateen zirrikitutik, txori etxola bat dakusat mahai gainean. Amari itaundu badiot ere, keinu batekin isilarazi nau, ohi bezala. Beti bezain egoskor. Behingoan, negarrari eusteko ahaleginetan edo, zurrumbilo batean murgildu da ontzi eta platerekin atzera-aurrera, orkestra desafinatu baten zuzendari eta musikari bakarra balitz bezala.

Logelara noa. Zartada batez atea itxi eta, kirol-oinetakoak erantzi gabe, ohe gainean gorputza jausten utzi dut, gaizki esaka. Telefonoa hartu orduko, dei bat. Kerman. Momenturik txarrean harrapatu nauela esan diot, zakar, solasak apurka-apurka lasaitzen lagundu badit ere. Luzaroan egon gara berbetan. Etxeko giro zapuztua azaldu diot eta udan bidaia bat egiteko asmoa badudala, familia barik.

—Nirekin etorriko al zinateke? —bota diot, birritan pentsatu gabe.

Sarajevo lehen aldiz zerutik ikusteak zirrara eragin dit gorputz osoan. Hain txikia ezen eraikinak eskuarekin lekuz mugi daitezkeela dirudien. Leiho ondoan nago jesarrita, Kerman, aldamean. Eztarria itxita daukat, ez zait barbarik irteten. Hor behean, Miljacka, ibai geldoa. Eta ertzetan, hainbat familia zatituren istorio zaurgarriak.

*Gotzone Butronen ipuin honi amaiera gehitu nahi izanez gero, hurrengo orrialdeko oinarriak irakur itzazu.

BizkaIldatz 2022 XIV. Literatura-Sariaren Oinarri arautzaileak

“Esta historia la escribes tú/Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da”

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, “Esta historia la escribes tú/Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da” leloa duen BizkaIldatz literatura -sariaren bidez, helburu nagusizat du bizkaitarren literatur sorkuntza bultzatu eta sustatu nahi du.

Parte hartzaileak:

1) Hamasei urtetik gorako pertsona fisikoak aurkeztu ahal izango dira literatura-lehiaketa honetara; aurkezten dituzten lanek originalak izan behar dute eta ezin dira aurretik argitaratutakoak izan, ez zati batean, ez osorik; gainera, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu du foru arau horrek) 12. artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 16 urte beteta eduki behar izango dute.

Adingabeen eskabideak haien guraso-ahala edo legezko ordezkariak duten pertsonak aurkeztu beharko dituzte.

Edonola ere, adingabeak bete beharko ditu 2. oinarrian onuradunentzat ezarritako baldintzak.

2) Gainera, parte hartzen duten pertsona egileek baldintza hauetako bat bete beharko dute, gutxienez, Bizkaiko Lurralde Historikoan jaiok izatea edo,

bestela, Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea foru dekretu hau argitaratzen denean edo foru dekretu hau argitaratu aurretik urtebetez gutxienez Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egon izana.

3) Aurreko bi edizioetan, edozeinetan, lehenengo saria irabazi duen pertsonak saririk jaso ez zuen modalitatean bakarrik parte har dezake aurtengo deialdian (euskaraz edo gaztelaniaz), 2022ko XIV. BizkaIdatz sarian.

Obren betebeharrak:

1) Lehiaketa honetan, gaur egungo idazle batek hasitako kontakizun bati jarraipena ematen dioten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira; beraz, hasiera horretara, haren pertsonaietara eta egoeretara egokitu behar dira kontakizunak

2) Aurtengo deialdian, parte-hartzaileek kontakizun hauen hasierak hartu beharko dituzte abiaburutzat:

a) Euskarazko atalean, Gotzone Butron Kamiruaga idazlearen “Nire Sara-jevo” kontakizunaren hasiera.

b) Gaztelaniazko atalean, Mikel Alvira Palacios idazlearen “Los imperfectos” kontakizunaren hasiera.

3) Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake, eta euskarazko edo gaztelaniazko kontakizunak aurkez ditzakete, eta, epaimahaiak horrela erabakitzen badu, atal bietan izan daitezke irabazle.

Euskarazko kontakizunaren hasiera aukeratuz gero, kontakizunak euskaraz jarraitu behar izango du; gaztelaniazkoa aukeratuz gero, berriz, gaztelaniaz.

4) Narrazioek, gutxienez, 12 orrialdeko luzera izan beharko dute, eta, gehienez, 15 orrialdekoa. “Times” edo “Arial” letra erabili beharko da, DINA4

tamainako orrietan idatzita. Eta honako ezaugarri hauek gorde behar dituzte: gorputza, 12; espazioa, bikoitza; gutxienez 24 lerro eta gehienez 32 lerro orrialde bakoitzean, eta lerro bakoitzean, gutxienez, 70 karaktere, salbu eta ortografiazko zeinu jakin batzuen aplikazioaren emaitzako salbuespenak.

5) Lehiaketa honetara aurkeztuko diren kontaketek derrigorrez bete behar dute ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoaren arabera emakumeen eta gizonen berdintasuna.

Aurkezteko epea, lekua eta modua:

1) **Epea:** Eskabideak eta literatura-kontakizunak aurkezteko epea 2022ko apirilaren 5etik irailaren 9ko 13:30era artekoa izango da.

2) **Lekua:** Eskabideak aurkeztu ahal izango dira, Laguntza - Erregistroa eta Herritarrenganako bideratzeko bulegoan (Diputazio kalea, 7 zk., 48008 - Bilbo, Bizkaiko Foru Liburutegiko beheko soilaruan), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako eratako baten bidez.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikokoaren bidez aurkezteko:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>.

3) **Eskabidearen eredia eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza elektronikokoaren bidez aurkeztu diren eskaerak egoitzan bertan betetzeko eta aurkezteko eskuragarri dauden eredu ofizialen arabera izan beharko dira (*<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>*),

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Gainerako kasuetan, eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta <http://www.bizkaia.eus//kulturadirulaguntzak> web orriaren bidez eskuragarri.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da, oinarri arautzaileetan ezarritako eta jarraian adierazitako zehaztapenekin:

- Parte-hartzaileak **idatzitako kontakizunaren kopia bat**, eskabidea egoitza elektronikoaren bidez aurkezten bada.

Gainerako kasuetan **kontakizunaren lau kopia** aurkeztu beharko dira.

Obraren aleak ez dira sinatu behar; zenbakia jarrita izango dute orrialde guztietan, eta kontakizunaren izenburua adierazita izan behar dute; ez, ordea, egilearen identifikazio-daturik.

- **Eskabidea ordezkari bidez aurkeztuz gero** (nolanahi ere, kontakizunaren egilea adingabea den eskaeretan), ordezkari-tza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez **egiaztatuta beharko da**.

Dokumentazio egiaztagarria:

Dauden datu-bitartekarizarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei eta haien ordezkari-entzuten buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu

espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira, hori guztia 39/2015 Legearen 28.2 artikulua babesean.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun-datuak.

Alta edo aldaketa kasuetan bakarrik, edo eskatzaileak uko egiten badio administrazio honek banku-datu horiek bere kabuz egiaztatzeari, banku-helbide-eratzearen fitxa behar bezala beteta, eredu ofizialean, <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak> web-orrian eskuragarri dagoena.

b) Zerga-betebeharrak egunean beteta dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean beteta dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Bizkaian erroldatuta egotearen ziurtagiria.

Foru Dekretu hau argitaratzen den egunean Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta ez dauden baina aurretik erroldatuta egon ziren pertsonak zein udalerritan erroldatuta egon ziren adierazi beharko dute.

Nolanahi ere, arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragin-garritasunera jotzea, Kultura Ondarearen Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide

digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

Epaimahaia:

1) Sariak emateko, deialdi honetarako izendatutako eta literaturaren eta kulturaren munduko pertsona ezagunek osatutako epaimahai kalifikatzaile batek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako kontakizunak, eta epaimahai horrek egingo du kontakizun irabazleen proposamena, honako irizpide hauen arabera:

- Proposatutako kontakizunari emandako jarraipena eta harekiko batasuna: 4 puntu gehienez.

- Kalitate literarioa: 3 puntu, gehienez.

- Istorioaren garapenean izandako sormena: 3 puntu gehienez.

2) Epaimahaiaren osaera Euskara, Kultura eta Kirol Saileko ebazpen bidez izendatuko da, foru diputatuaren foru agindu bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Saria:

1) Irabazleei sari hauek banatuko zaizkie, bai euskaraz aurkezturiko lane-tan, bai gaztelaniaz aurkezturikoetan:

- Lehenengo saria: 2.000 euro eta diploma.

- Bigarren saria: 750 euro eta diploma.

- Hirugarren saria: 250 euro eta diploma.

Aurreko atalean agertzen diren sari ekonomikoei atxikipen fiskalak egingo zaizkie, legeak ezartzen duenarekin bat.

2) Adingabeek sariren bat lortuko balute, legezko ordezkariak izango dira —eta ez adingabeak— jasotako kopuru ekonomikoaren onuradunak; salbu eta sariaren ordainketa izapidetu aurretik adingabeak adin-nagusitasuna lortzen badu, kasu horretan, bera izango da sariaren onuraduna.

3) Saritutako kontakizunak edizio berezi batean argitaratuko dira.

4) Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako kontakizunak ez badituzte betetzen sarituak izateko ezarritako baldintzak, edo balorazioan ez bada puntuazio nahikorik eskuratu.

5) Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak behin betiko ebazpena emango du, sariaren banaketa jasoz, epaimahai kalifikatzailearen ebazpen-proposamenaren arabera, eta parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie.

Saridunen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, iragarki baten bidez.

Saritutako egilearen betebeharrak:

1) Saridunek eurek joan beharko dute uneko inguruabar soziosanitarioen arabera egiten den sariak banaketako ekitaldira, edo ordezkari baten bidez, ezinezkoa bazaie. Ekitaldi horren berri behar bezala emango da.

2) Saria ordaintzen denetik aurrera, hurrengo bost urteetan Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak, eta sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko, saria baita ordainsari osoa eta bakarra.

3) Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaren agerraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako

elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

“Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia”.

Bestelakoak:

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak. Horretarako interesdunen eskura dago <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea> web orrian.

Oinarri hauek jasotzen dituen Foru Dekretua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da, 65. zenbakian, 2022ko apirilaren 4an, eta <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak> webgunean dago eskuragarri.